

GOBERNU BATZARRA

2016. 10. 24

| | |
|-------------------------------------|--|
| Alkatea: | Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urriaren hogeita lauan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko. |
| Olatz Peon Ormazabal | |
| Zinegotziak: | |
| Patxi Amantegi Zubiria | |
| Nerea Letamendia Belloso | |
| Iñigo Alonso Sarasibar | |
| Jokin Azkue Arrastoa | 1.- Aurreko akta onartzea. |
| Beh. Behineko Idazkaria: | 2.- Tolosako Eskolapioetako sarbidea handitzeko obren 1. ziurtagiria-likidazioa (fv1-1610-0005 faktura). |
| Karmele Contreras Goikoetxea | |
| Kontuhartzailea: | 3.-34/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda. |
| Ainhoa Molinos Zubiaurre | |

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko urriaren 17an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Tolosako Eskolapioetako sarbidea handitzeko obren 1. ziurtagiria-likidazioa (fv1-1610-0005 faktura).

Bi mila hamaseiko uztailaren 4an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresari esleitzea "Tolosako Eskolapioetako Sarbidea Handitzeko" izeneko proiektua gauzatzeko obren kontratua, 244.187,91 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte obren inguruan ez da ziurtagiririk aurkeztu eta oraingoa lehendabiziko da eta, alde berean, obraren likidazioa suposatzen du.

| | | |
|---------------------------------|------------------------------|--------------------|
| <i>Ziurtagiri zenbakia.....</i> | <i>Faktura zenbakia.....</i> | <i>Zenbatekoa</i> |
| 1. ziurtagiria-likidazioa..... | FV1-1610-0005..... | 243.950,86€ |
| GUZTIRA..... | | 243.950,86€ |

Ziurtagiri hau azterturik Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- “Tolosako Eskolapioetako Sarbidea Handitzeko” obrak egiteko kontratuaren likidazioa onartzea 243.950,86€ (BEZ barne) delarik zenbatekoa.

BIGARRENA.- “Tolosako Eskolapioetako Sarbidea Handitzeko” obrak egiteko kontratoaren 1. ziurtagiria onartzea 243.950,86€ (BEZ barne) delarik zenbatekoa.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Campezo Obras y Servicios S.A., enpresari eta Kontuhartzailtza departamentuari.

3.-34/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailtzak **34/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **475.710,49 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **34/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh.IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Karmele Contreras Goikoetxea